## EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-erakundearen helburu nagusietako bat da bi hizkuntza koofizialetan elebidunak diren ikasleak lortzea. Hori dela eta, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura jakintzagaietako curriculum integratua diseinatzean, ikasle guztiek, derrigorrezko eskolatzea amaitzean, euskara eta gaztelania behar bezala eta eraginkortasunez menderatzen eta erabiltzen dutela bermatu nahi da, ahaztu gabe konpetentziak eskuratzeko prozesua desberdina izango dela familia-hizkuntza gisa ikasi edo bigarren hizkuntza gisa ikasi. Helburu hori lortze aldera, eskolak euskararen erabilera sustatu behar du, eta haren normalizazioa bultzatu behar du, gizartean eta hizkuntzaren aldetik presentzia orekatua izan dezan. Gainera, euskara euskal kulturaren ezaugarri nagusia izanik, ezin da ez garatu ez ikasi dagokion kultura-testuinguruaz kanpo, kulturek gizarte-loturak ezartzeko gaitasuna baitute, eta kulturen adierazpenek komunitateen kohesioa errazten baitute.

Bi jakintzagaiak curriculum bakar batean integratzearen helburu nagusia hizkuntza-ikaskuntzak errentagarri egitea da. Curriculum integratu horrekin, irakasleek metodologia aktiboetan oinarritutako programazio adostua prestatu behar dute, ikasleei beren hizkuntza-ikaskuntzak transferitzen laguntzeko eta beren komunikazio-konpetentzia eleaniztuna ahalik eta gehien garatzen laguntzeko. Horretarako, konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpide partekatuak erabiliko dira, baita hizkuntzen artean banatutako (eta/edo errepikatutako, beharrezkoa izanez gero) oinarrizko jakintzak ere. Ezinbestekoa izango da irakasleak koordinatzea, hizkuntzen irakaskuntzari elementu komunetatik ekin diezaioten, eta, zeregin horretan, bi hizkuntzak desberdintzen dituzten alderdiak kontuan hartzea eta bi hizkuntzen arteko errespetuari eta begiruneari eustea.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura jakintzagaiak bideratzen dira komunikazioaren eraginkortasunera, gogoeta eta ezagutza berriaren eraikuntzara eta hizkuntzaren erabilera etikora, non hitzak jarriko diren bizikidetza demokratikoaren zerbitzura, gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketaren zerbitzura eta pertsona guztien eskubide-berdintasunean eta errespetuan oinarritutako lotura pertsonal eta sozialen zerbitzura, genero-ikuspegiari eta erabilera ez-sexistari arreta berezia eskainiz. Hartara, jakintzagaiek lagunduko dute ikasleek, oinarrizko hezkuntzaren amaieran, izan behar duten irteera-profilean jasotako konpetentzia guztiak garatzen.

Hizkuntza-jakintzagaien komunikazio-izaera instrumentala kontuan izanik, agerikoa da gainerako jakintzagaiei egiten dieten ekarpena. Izatez, hizkuntzen ikaskuntzaren oinarrizko xedea da etapa bakoitzeko berezko komunikazio-egoeretarako egokiak diren askotariko testuak modu koherentean, kohesionatuan eta egokian ulertzeko eta sortzeko gaitasuna garatzea, bizitzan zehar ikasteko oinarriak testuinguru formaletan, informaletan eta ez-formaletan finka daitezen. Hizkuntza erabiltzen ikastea, halaber, arazoak

aztertzen eta ebazten ikastea da, baita planak egiten eta erabaki-prozesuei ekiten ikastea baita komunikazio-egoera bakoitzean egokiak diren estrategiak erabiltzen ikastea ere. Ikasleek, edukiekin batera, jakintzagai bakoitzaren adierazpen moduak ere ikasi behar dituzte; hartara, hizkuntza-jakintzagaien garapenak gainerako jakintzagaien garapena dakar. Horrenbestez, edukia eta hizkuntza integratu beharko dira, eta, ildo horretan, diziplinarteko lana, ikas-egoeren bidez planteatua, ezinbestekoa izango da ikasleek jakintzagai bakoitzaren berezko diskurtso-generoak beregana ditzaten. Era berean, jakintzagai guztiek laguntzen dute ahozko eta idatzizko produkzio- eta hartze-prozesuen hobekuntzan, baita produkzio- eta hartze-prozesu multimodalen hobekuntzan ere. Horri dagokionez, eskolako liburutegia funtsezko pieza da, bai kultura-gune gisa, bai ikerketa- eta ikaskuntza-gune gisa, bai baliabide-, prestakuntza- eta koordinazio-gune nagusi gisa.

Hamar konpetentzia espezifikok osatzen dute Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura curriculumaren ardatza. Lehen konpetentzia bideratzen da Euskal Herriko, inguruneko eta munduko hizkuntza- eta dialekto-aniztasuna onartzera, betiere aniztasun hori estimatzeko jarrerak bultza daitezen, hizkuntza-aurreiritziei eta -estereotipoei aurre egin dakien eta hausnarketa interlinguistikoa piztu dadin. Euskal gizarteak urratsak egiten ditu elebitasun asimetriko batetik testuinguru eleaniztun baterantz. Hori dela eta, egoera soziolinguistikoei buruzko gogoeta sustatu beharko da, jarrera positiboak gara daitezen hizkuntza-aniztasunarekiko, oro har, eta euskararen normalizazio-prozesuarekiko, zehazki.

Bigarren eta hirugarren konpetentziak ahozko komunikazioarekin lotzen dira. Horixe izan da, historikoki, gutxien landu dena eskola-sisteman. Ahozko komunikazioaren garrantzia nabarmendu beharko da, komunikazio-konpetentzia osoa garatzeko zein ikasgelako elkarreragina errazteko. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoak behartuta, eskolak euskarazko ahozko komunikazioa bultzatu beharko du, euskararen erabilera soziala errazte aldera eta normalizazio-prozesua bultzatze aldera.

Laugarren eta bosgarren konpetentziak irakurriaren ulermenarekin eta idatzizko adierazpidearekin lotzen dira. Irakurketaren ikaskuntza ia modu esklusiboan lotu da literatura-irakurketarekin, baina, duela hamarkada batzuetatik, komunikazio-ikuspegiek irakurketa-helburu desberdinak dituzten orotariko testuak irakurtzen irakasteko beharra nabarmentzen dute. Gaur egun, irakurtzen jakiteak berarekin dakar nabigatzea eta sarean bilatzea, informazio fidagarria hautatu eta modu kritikoan aztertzea, informazioa prestatu eta norberaren eskemetan sartzea, eta abar. Hori dela eta, seigarren konpetentziak informazio-alfabetatzean jartzen du arreta, zazpigarrenak irakurzaletasunaren garapenean eta zortzigarrenak literatura-irakurketan. Bederatzigarren konpetentziak hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa jorratzen du. Hamargarrena, berriz, komunikazioaren etikari buruzkoa da, eta aurreko konpetentzia guztiekiko zeharkakoa.

Konpetentzia horiekin beste urrats bat egiten da aurrera Lehen Hezkuntzan eskuratutako konpetentziei dagokienez; izatez, Lehen Hezkuntzako konpetentziak abiapuntu izanik, eboluzionatu beharko da gidatutako akonpainamendutik gero eta maila autonomoago batera. Graduazio horrek berarekin ekarriko du, gainera, diskurtso-praktikek gero eta aniztasun eta konplexutasun handiagoa izatea, hizkuntzak hezkuntza- eta gizarte-esparruetan duen erabilerari arreta ematea, literatura-konbentzioek eta testuinguru historikoak literatura-testuak ulertzeko duten zeregina azpimarratzea eta garrantzi handiagoa ematea hizkuntzen funtzionamenduari eta erabilerei buruzko gogoetari.

Oinarrizko jakintzak lau multzo handitan antolatzen dira. Hizkuntzen eta horien hiztunen multzoa zuzenean lotzen da lehen bi konpetentziekin. Komunikazioaren multzoak barnean hartzen ditu ahozko eta idatzizko komunikazioan eta informazio-alfabetatzean eta alfabetatze mediatikoan inplikatuta dauden jakintzak, betiere testuen produkzio, hartze eta analisi kritikoaren inguruan egituratuta. Literatura-hezkuntzak irakurzaletasuna sendotzeko, norberaren irakurle-nortasuna osatzeko eta literatura-testuen interpretaziorako trebetasunak garatzeko beharrezkoak diren jakintzak eta esperientziak biltzen ditu, baita euskal literaturako, Espainiako literaturako eta literatura unibertsaleko obra garrantzitsu batzuk ezagutzeko beharrezkoak diren jakintzak eta esperientziak ere; hortaz, literatura-asmoko sorkuntza-idazketa sustatzen du. Hizkuntzari buruzko gogoetaren multzoak hizkuntza-sistemari buruzko ondorioen eraikuntza gidatua proposatzen du, hipotesien formulaziotik, kontraadibideen bilaketatik eta hizkuntzen arteko orokortzeen eta kontrasteen ezarpenetik abiatuta eta metahizkuntza espezifikoa erabilita. Hizkuntza sistema gisa aintzat hartzea, beraz, ez da ezagutza jakin bat izango, baizik eta eraikitzen den jakintza bat.

Jakintzagaien konpetentzia-ikuspegi globala kontuan hartuta, honako alderdi hauen arabera ezartzen da mailen arteko graduazioa: testuen konplexutasuna; haien esperientziekiko hurbiltasuna eta testuinguruaren ezagutza; beharrezkoak diren produkzioedo interpretazio-trebetasunak; hizkuntza-gogoetarako behar den metahizkuntza; edo ikasleei emandako autonomia-maila. Hori dela eta, oinarrizko jakintzek eta ebaluazio-irizpideek korrelazioa dute maila batetik bestera.

Eskola-testuinguruetako hizkuntza-aniztasunak, ikasle elebidunak lortzeko helburuak eta hezkuntza eleaniztunaren beharrak eraginda, ezinbestekoa da proposatutako tratamendu integratua garatzea gogoeta interlinguistikoa susta dadin eta benetako gizarte-erabileretara hurbil dadin; izan ere, askotan bi hizkuntza edo gehiago erabili behar izaten da aldi berean.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Euskal Herriko eta inguruneko errealitate elebiduna eta eleaniztuna ezagutzea, interpretatzea eta baloratzea, bertako hizkuntzen eta barietate dialektalen ezaugarriak eta garapena aztertuz eta horiekiko guztiekiko portaera enpatikoa eta errespetuzkoa erakutsiz, gogoeta interlinguistikoa errazteko, hizkuntza-aurreiritziei aurre egiteko, aniztasuna aberastasun-iturri gisa onartzeko eta euskararen erabileraren aldeko portaera asertiboak sustatzeko.

Hizkuntza-aniztasuna gaur egungo munduaren funtsezko ezaugarria da. Gure ikasgeletan, ikaskuntza-hizkuntzaz, edo ikaskuntza-hizkuntzez gainera, bestelako hizkuntzak edo barietate dialektalak erabiltzen dituzten pertsonak daude, zeinu-hizkuntzak barne. Euskal eskolak, elebitasuna bermatzeko erronkaz gain, pertsona eleaniztunak lortzeko helburua ere badu. Euskara da sistema eleaniztun horren ardatza, bi hizkuntza ofizialen artean gaur egun dagoen desoreka gaindi dadin eta bi hizkuntzen arteko gizarte-berdintasuna eta ikasleentzako aukera-berdintasuna susta dadin (gaur egun euskara egoera kaskarragoan dago). Horregatik, eta eskola euskararentzat eta hizkuntza horrek ordezkatzen duen kulturarentzat ezinbesteko gotorleku izango bada, koherentziaz funtzionatu behar dute hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek, eta euskara esparru formalean eta informalean normaltasunez erabili ohi dela ziurtatu beharko da, barneko nahiz kanpoko jarduereetan eta, oro har, eskolako jarduereetan.

Hizkuntza-klaseek ikasleen hizkuntza-aniztasuna aintzat hartu behar dute, hizkuntza-aurreiritziak saihets daitezen eta hitzezko kodeen aberastasun horren ondoriozko kultura-esanahiak atxiki daitezen, baita hizkuntzen eta haien barietateen funtzionamenduaren ezagutzan sakon dadin ere. Hartara, gogoeta interlinguistikoa eta beste hizkuntza batzuetako hiztunekiko komunikazioa bultzatu beharko da eta ingurune birtualen bidezko kolaborazio-lana sustatu.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako hizkuntzen jatorria eta garapen historikoa eta soziolinguistikoa ezagut dadin bultzatu behar da. Euskarari dagokionez, ikasleek alderdi hauek ezagutu eta baloratu behar dituzte: euskara duela milaka urte sortutako (Europako hizkuntzarik zaharrena hizkuntzalari askoren esanetan) eta jatorri ezezaguneko hizkuntza izatea; euskarak kultura-ondareari egindako ekarpena; euskararen aniztasuna; erakundeek eta kolektiboek euskararen alde egindako ahalegina, euskararen batasuna sustatzeko, euskalkietako hiztunen arteko komunikazioa errazteko eta euskara batua sortzearekin euskararen existentziari eusteko; eta hizkuntzaren egungo egoera soziolinguistikoa. Gainera, ikasleek euskararen erabileraren aldeko jarrera proaktiboa erakutsi behar dute, gure erkidegoko ondare artistikoa eta kulturala babesten laguntze aldera. Espainiera edo gaztelania, bestalde, mundu osoan hedatutako hizkuntza unibertsala da, polizentrikoa eta aniztasun oso handikoa. Beraz, heterogeneotasuna da bi hizkuntzen ezaugarria. Edonola ere, barietate geografikoetako bakar bat ere ezin da bestea baino zuzenagotzat jo, barietate bakoitzak bere arau kultua baitu. Eta, gainera, ikasleak Espainiako hizkuntzen —zeinu-hizkuntzak barne— oinarrizko zenbait noziorekin ohitu daitezen lortu nahi da, eta haiekiko portaera enpatikoa eta errespetuzkoa izan dezaten sustatu nahi da.

Horrenbestez, ikasleek ikasi behar dute bereizten, batetik, hizkuntzen aniztasun geografikoaren ondoriozko ezaugarriak eta, bestetik soziolektoarekin edo hiztunek komunikazio-egoera desberdinetara

moldatzeko erabiltzen dituzten erregistroekin zerikusia duten bestelako ezaugarriak. Gainera, ikasleek segurtasunez eta zalantzarik gabe erabili beharko dute beren barietate dialektala. Horren guztiaren azken helburua izango da hizkuntza-eskubide indibidualekin eta kolektiboekin sentsibilizatuta, informatuta eta konprometituta dauden herritarrak sustatzea eta ingurune digitaletan ere hizkuntza gutxituen defentsa bultzatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena bilduz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitzeko, iritzia osatzeko eta gozameneko eta aisiarako aukerak zabaltzeko.

Ahozko ulermenaren estrategien garapenak berarekin dakar komunikazioa asmoen interpretazio-prozesu etengabea dela ulertzea, baita prozesu horretan igorlearen eta hartzailearen arteko ezagutza partekatuek eta testuinguruko elementuek eta elementu kotestualek parte hartzen dutela ere, testuaren esanahiaz harantzago joateko eta testuaren zentzua interpretatzeko aukera ematen duten heinean. Orain dela gutxi arte ahozko komunikazioa beti sinkronoa bazen ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek komunikazio asinkronoaren aukerak zabaldu dituzte eta komunikazio-ingurune digital publikoetarako sarbidea ireki dute eskolatik. Eskolak hainbat esparrutako berezkoak diren eta ikasleentzat adierazgarriak diren praktika diskurtsibo ugari plantea ditzake eta planteatu behar ditu, gizartean garrantzia duten gaiak eta euskal kultura-ondareko gaiak lantzen dituztenak, hala nola baladak edo abesti herrikoiak.

Ahozko mezuak behar bezala ulertu eta interpretatuko badira, trebetasun espezifikoak eduki beharko dira, eta horiek ere irakatsi eta ikasi beharko dira: oinarrizkoenetatik —edukia aurreratzea; informazio garrantzitsua gordetzea, helburuaren beraren arabera; egitateak eta iritziak bereiztea; edo diskurtsoaren zatien arteko lotura eta esanahi orokorra atzematea— aurreratuenetara —igorlearen asmoa identifikatzea; prozedura erretorikoak aztertzea; argudioetako gezurrak antzematea; edo testuaren fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzea—. Gizarte-arloari dagokionez, ahozko mezuen interpretaziorako trebetasunak eskolan garatzerakoan, kontuan hartu beharko dira ikus-entzunezko alfabetatze mediatiko espezifikoa eskatzen duten askotariko testu multimodalak, manipulazio- eta desinformazio-arriskuei aurre egin dakien. Trebetasun eta trebezia horien garapenean, atzeraelikadurako prozesu metakognitiboak sustatuko dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK3

3. Ahozko testuak eta testu multimodalak jariakortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, eta ahozko elkarreraginetan jarrera kooperatiboz eta errespetuz parte hartzea, bai ezagutzak eraikitzeko eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai gizarte-testuinguruetan modu aktiboan eta informatuta parte hartzeko.

Ikasleen komunikazio-konpetentzia garatze aldera, ezinbestekoa izango da ahozko erabilerei arreta jartzea, ikasteko bide zein ezagutza-gai izan behar baitute. Hizkuntzako eta literaturako klaseek testuinguru dibertsifikatu eta adierazgarriak eskaini behar dituzte, esparru publikokoak zein pertsonalak eta/edo etxekoak. Ikasleek hitza hartu ahal izango dute eta beren parekoekin zein pareko ez direnekin hitz egiteko aukera izan behar dute elkarrizketa pedagogikoki bideratuetan eta hizkuntza sexistarik gabe. Bestalde, ezagutzen eraikuntza bultzatu behar dute, hizkuntzaren erabilera formalei eta informalei, bat-batekoei edo planifikatutakoei buruz gogoeta egin dezaten.

Euskara eskola-hizkuntza denez gero, konpetentzia honek garrantzi berezia du Euskara eta Literatura jakintzagaian. Jakintzagai horrek hainbat egoera sortu eta bultzatu beharko ditu ikasgelaren barruan eta kanpoan, ikasleek elkarreragin ahal izan dezaten, euskarak gizartean duen presentzia sozial txikiagoa konpentsatze aldera. Ez dugu ahaztu behar ikasle batzuentzat ikastetxea dela euskararekin harremana

duten gune urrietako bat, bakarra ez bada. Horrenbestez, hizkuntza horren ahozko erabilera formala eta informala bermatzeko eta indartzeko ahaleginak areagotu beharko dira, erabilera hori bizitza sozialera zabal dadin.

Ahozko elkarreraginak honako alderdi hauek eskatzen ditu: hitza hartu eta emateko estrategiak ezagutzea; modu aktiboan eta errespetuz entzuteko jarrerak zabaltzea, erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuz; arin, argi eta tonu eta erregistro egokiz adieraztea; eta kortesiako eta elkarrizketa-kooperazioko estrategiak erabiltzea. Ahozko produkzio formalak —monologoan edo elkarrizketan— plangintzarako aukera ematen du, eta, hartara, estrategiak partekatzen ditu idazketa-prozesuarekin. Komunikazio-egoerari —egoeraren formaltasun handiagoa edo txikiagoa kontuan izanik—, solaskideen arteko erlazioari, komunikazio-asmoari eta komunikazio-kanalei erreparatuta, diskurtso-generoek (zenbait esparrutako berezko komunikazio-praktikak gauzatu dituzten moldeak) diskurtsoa egituratzeko jarraibideak eskaintzen dituzte, baita erregistroa eta hitzik gabeko portaera egokitzeko jarraibideak ere. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ahozko komunikazio multimodalerako (sinkronoa zein asinkronoa) formatu berriak ekartzen dituzte, eta, era berean, ikasleen ahozko ekarpenak erregistratu ahal izatea errazten dute, testuinguru errealetan heda daitezen eta ondoren aztertu, berrikusi eta ebalua daitezen (autoebaluazioa eta koebaluazioa).

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.

4. Testu idatziak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu kritikoan eta irakurtzeko zenbait xedez, zentzu orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutuz, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiari eta formari buruzko gogoeta eginez eta kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, ezagutza eraikitzeko eta askotariko komunikazio-premiei eta -interesei erantzuteko.

Irakurtzeko konpetentzia garatzeak berarekin dakar motibazioan, konpromisoan eta irakurketa-praktiketan eragitea, baita irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren zabaldu behar diren estrategien ezagutzan eta erabileran ere, neska-mutilak orotariko testuen aurrean irakurle gaitu, autonomo eta kritikoak izan daitezen, testuen kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatzen jakin dezaten eta testu horietan beren bizitzako esparru guztietako irakurketa-xedeei erantzun dakien.

Testu bat ulertzeak esanahi du testuaren zentzu orokorra eta irakurketaren helburuaren araberako informaziorik garrantzitsuena jasotzea, informazio esplizitua integratzea eta behar diren inferentziak egitea, betiere testuaren zatien arteko lotura berreraikitzeko, testu horien azpian dagoen komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak formulatzeko, eta testu horien formari eta edukiari buruzko gogoeta egiteko. Ildo horretan, komeni da ikasleen irakurketa-prozesuei arreta handia jartzea ikasgelan. Horretarako, kontuan hartu behar da, batetik, irakurleak testuan jasotako gaiarekin izan dezakeen lotura emozionala, eta, bestetik, XXI. mendeko alfabetatzeak nahitaez barne hartu behar duela Interneteko hipertestuak irakurtzen irakastea. Hizkuntzako klaseetan erabiltzen diren testu idatzien esparruak dibertsifikatu behar dira, eta testu horiekin ikasgelan lan egiteko testuinguru adierazgarriak sortu behar dira, testuen eta proposatutako zereginen konplexutasuna mailakatuz eta osagarritasuna bilatuz (testuen luzera, egitura, hizkuntza, gaia, eta abar hartuko da aintzat). Ezinbestekoa da, beraz, curriculumeko beste jakintzagai batzuekin koordinatuta lan egitea, jakintza-arlo bakoitzari lotzen zaizkion diskurtso-generoen berezitasuna kontuan izanik. Horrez gain, beste curriculum-hizkuntzekin koordinatuta ere lan egin beharko da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, KPSII5, HK3.

5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioei jarraituz, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko.

Idazten jakiteak, gaur egun, zenbait euskarritan eta formatutan egiten jakitea eta bizitzan zehar ikastea esan nahi du. Izatez, formatu eta euskarri horietako asko hipertestualak eta multimodalak dira, eta

zenbait erabilera-esparrutako berezko idatzizko komunikazio-praktikak gauzatu dituzten «moldeak» ezagutu eta menderatu behar dira: diskurtso-generoak. Hori dela eta, idazmenaren irakaskuntzak/ikaskuntzak ikasgelan arretaz eta etengabe esku hartzea eskatzen du. Idatzizko testu bat egitea lau une, gutxienez, dituen prozesu baten emaitza da, bat-batekotasun handieneko formetan ere bai: plangintza (komunikazio-asmoa eta komunikazio-egoeraren hartzailea eta azterketa zehaztea eta ereduak irakurtzea eta aztertzea), testualizazioa, berrikuspena (autonomoa izan daiteke edo beste ikasle batzuekin batera egindakoa edo irakasleek gidatutakoa) eta azken testuaren edizioa.Prozesu horretan, ez dugu ahaztu behar zer garrantzi duen landutako testu horiek hedatzeak; izan ere, testuen hedapenak ikasleen inplikazioa sustatzen du, esaterako, testua beste irakurle batzuen ekarpenekin berrikustea eta hobetzea sustatzen du.

Hezkuntzaren esparruan, enfasia jarriko zaie idazketaren erabilerei —apunteak hartzeko eta eskemak, mapa kontzeptualak edo laburpenak egiteko—, sormenezko idazketaren praktikei eta testu akademiko, analogiko eta digitalen idazketari. Testu idatziaren konposizioak hurrengoak hartu behar ditu kontuan: informazioaren aukeraketa eta antolaketa (koherentzia); testuaren zatien eta haien hizkuntza-marken arteko lotura (kohesioa); erregistroaren aukeraketa (egokitasuna); zuzentasun gramatikala eta ortografikoa; eta egokitasun lexikoa. Halaber, erabakiak hartu behar dira idatziaren tonuari buruz, pertsonak (igorlea eta hartzaileak) diskurtsoan inskribatzeari buruz, eta estilo eta hizkuntza ez-sexistari buruz; hortaz, ezin da bereizi hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta esplizituaren eta erabileretan duen proiekzioaren arteko lotura.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.

6. Hainbat iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz; eta informazio hori ezagutza bihurtzea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa eta pertsonala hartuz eta, aldi berean, jabetza intelektuala errespetatuz.

Informazioa eskuratzeak ez du berez ezagutza bermatzen; izatez, ezagutza ulertu behar da gizarte modernoaren printzipio egituratzaile gisa eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko funtsezko tresna gisa. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek informazioa ezagutza bihurtzeko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea, eta, horretarako, jakitea informazio hori noiz behar den, non bila daitekeen, nola kudea daitekeen eta nola ebaluatu eta komunikatu daitekeen, betiere ikuspuntu kritiko eta pertsonaletik eta jarrera etiko, arduratsu eta errespetuzkoa erakutsiz jabetza intelektualeko lizentzia motekiko eta nortasun digitalarekiko.

Ahalegindu behar da ikasleek —bakarka edo modu kooperatiboan— askotariko informazio-iturri fidagarriak eta seguruak kontsultatzea testuinguru sozial edo akademikoetan, betiere curriculumeko gaiei buruzko edo gaurkotasun sozial, zientifiko eta kulturaleko alderdi garrantzitsuei buruzko ikerketa-lanak edo

-proiektuak egin daitezen. Ikerketa-prozesu horiek gero eta autonomia handiagoz planifikatzera eraman behar dute, baita lortutako ezagutzaren dibulgazioaren berezko produkzioen aurkezpenean ezarritako konbentzioak gero eta autonomia handiagoz errespetatzera ere: epigrafe bidezko antolaketa; aipuak, oharrak, bibliografia eta webgrafia jasotzeko prozedurak; eta mezu multimodaletako komunikazio-kodeen konbinazio egokia. Ikaskuntza berriaren hedapenean ezinbestekoa da, halaber, sormena garatzea eta testuingurura egokitzea. Eskolako liburutegia izango da konpetentzia hori eskuratzeko inguruneetako bat —kultura irakurri eta zabaltzeko tokia eta, gainera, ikaskuntzarako sormenezko gunea—.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, KPSII5, HK2, EK3.

7. Gero eta modu autonomoagoan aukeratzea eta irakurtzea hainbat obra —plazer- eta ezagutza-iturri gisa—, obren aniztasunari, konplexutasunari eta kalitateari dagokienez eboluzionatzen duen irakurle-ibilbidea eratuz; eta irakurketa-esperientziak partekatzea, nork bere irakurle-nortasuna eraikitzeko eta irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.

Konpetentzia hau garatzeak berarekin dakar aurrerabide planifikatuan urratsak egitea. Horretarako, aldian-aldian eta etengabe irakurketa indibidualari denbora eskaini beharko zaio, eta estrategia eta aldamio egokiak erabili beharko dira irakurtzeko autonomia konfiguratzeko eta bizitza osoan garatuko den irakurle-nortasuna osatzeko.

Funtsezkoa da testu-corpus egokia eratzea eta, corpus horretan, euskal kultura-ondarearekin zerikusia duten obra ugari egotea eta emakumezko idazleen presentzia adierazgarria izatea. Corpus hori irakurketa autonomoa aberastea zein irakurketaren esperientzia pertsonala aberastea ahalbidetuko duten kalitatezko obrek osatu beharko dute, eta egungo literatura-formak, zientzia-liburuak, saiakerak, monografiak eta abar barnean hartuko ditu —inprimatuak eta digitalak—, baita azaleratzen ari diren kultura--praktikak ere. Horrekin batera, honako jarraibide hauek gomendagarriak dira: erreferente berak dituen irakurle-komunitatea eratzeko lan egitea —zenbait kasutan belaunaldi arteko komunitatea—; pertsona bakoitzari bere intereseko testuak aukeratzen lagunduko dioten estrategiak ezartzea, testuez jabetzea eta irakurketa-esperientzia pertsonala partekatzea; eta askotariko testuinguruak ezartzea, non irakurtzeko arrazoiak agertuko diren, obrei buruzko ikerketa-erronketatik abiatuta eta irakurleak testuekin modu afektiboan lotzeko moduak proposatuta. Konpetentzia finkatzen den heinean, arian-arian murriztu ahal izango da irakasleen laguntza, eta ezarri ahal izango dira irakurketa konplexuen eta ez hain konplexuen arteko erlazioak, baita modalitate autonomoko eta modalitate gidatuko irakurketa-moduen arteko erlazioak ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

8. Euskal Herriko, Espainiako eta mundu osoko ondarearen parte diren literatura-obrak edo obra horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta esperientzia pertsonala eta literatura- eta kultura-ezagutzak mobilizatuz, askotariko testuen arteko loturak eta bestelako arte- eta kultura-adierazpenekiko loturak ezartzeko, norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko, literaturaren gozamenerako aukerak zabaltzeko eta literatura-asmoko testuak sortzeko.

Konpetentzia honek erraztu beharko du obren identifikazio-irakurketatik edo argudio-irakurketatik gozamen kontzienteagoko eta landuagoko beste irakurketa batera igarotzea, eta ateak zabaldu behar dizkie hasiera batean ikasleen berehalako esperientziatik urrun dauden bestelako testuei. Ildo horretan, interpretazio-trebetasunak garatu beharko dira, ikasleak gero eta obra konplexuagoetara irits daitezen, gero eta argumentatuago dauden balio-iritziak hitzez adieraz ditzaten eta Euskal Herriko eta Espainiako horizonteak Europako horizontearekin eta horizonte unibertsalarekin uztartuko dituen eta obra literarioak bestelako arte- eta kultura-adierazpideekin uztartuko dituen kultura-nortasuna eraiki dezaten. Kultura--garaiak eta -testuinguruak zeharkatzen dituzten unibertsal tematikoen eta formalen iraupena egiaztatzeak testuarteko ikuspegia lehenestea dakar. Literatura-asmoko testuen sorrera bultzatzeak generoen konbentzio formalak menderatzen laguntzen du.

Konpetentzia hau garatzeko bi ardatz proposatu dira. Lehenik, ikasleentzat nolabaiteko erresistentzia edo zailtasun kognitiboa eta/edo emozionala duten obren irakurketa gidatua eta partekatua, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo —ikasleek obra horiez gozatzeko aukera izango dute, irakasleen edo beste pertsona heldu batzuen bitartekotzarekin, eta obra horien elementu garrantzitsuak menderatu ahal izango dituzte—. Bigarrenik, obra horiek hainbat garai, mugimendu eta testuingurutako testu literarioek eta ez-literarioek osatutako gaikako edo generoko ibilbideetan inskribatzea —testu horien irakurketa konparatuak gai, topiko eta forma estetikoen bilakaerari erreparatzen dio eta produkzio-horizontearen eta egungo harrera-horizontearen arteko loturak ezartzen laguntzen du—. Ibilbideak diseinatzean —emakumezko eta gizonezko idazleak egongo dira—, plangintza adostu beharko da etapan zehar, interpretazio-konpetentziak mailaz maila eskuratzeko beharrezkoak diren progresioa eta osagarritasuna ziurta dadin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD3, KPSII3, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.

9. Hizkuntzaren egiturari eta haren erabilerei buruzko ezagutza mobilizatzea eta hizkuntza- eta diskurtso aukeraketei buruz gero eta autonomia handiagoz eta terminologia egokiarekin gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko, komunikazio-errepertorioa handitzeko eta ahozko eta idatzizko produkzio-trebetasunak nahiz ulermen eta interpretazio kritikoko trebetasunak hobetzeko.

Hizkuntzaren ikasketa sistematikoa erabilgarria izango bada, batetik, ikasleen konpetentzia metalinguistikoa sustatu beharko du, hau da, ikasleak arrazoitzeko, argudiatzeko, behatzeko eta aztertzeko duen gaitasuna sustatu beharko du, eta, bestetik, hiztunen berezko erabilera errealekin lotuta egon beharko du, testuinguruan kokatutako arlo publiko eta sozialeko zein arlo pertsonal eta/edo etxeko arloko ahozko eta idatzizko testuen bidez. Gogoeta metalinguistikoak ikaslearen intuiziozko ezagutzatik abiatu behar du —hizkuntzaren erabiltzaile den heinean—, eta zubiak eraiki behar ditu, txiki-txikitatik, ezagutza sistematikoarekin, lehenik eskolako errealitatetik hurbilago dagoen hizkuntza komunarekin eta, gero, terminologia espezifikoa pixkanaka sartuz. Gainera, maila morfosintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa integratu behar ditu hizkuntza-formen ikasketan.

Hortaz, gramatikaren ikaskuntzari ekingo zaio ezagutza gramatikal esplizitua eta hizkuntzaren erabilera lotzearen bidetik, betiere gogoetatik abiatuta. Horretarako, hizkuntza-formek diskurtsoan hartzen duten esanahia eta funtzioa behatu behar da, orokortzera eta sistematizaziora iristeko enuntziatuen manipulaziotik abiatuta, edo perpausen arteko kontrastetik, hipotesien eta arauen formulaziotik, kontraadibideen erabileratik edo beste hizkuntza-fenomeno batzuekiko loturatik abiatuta. Azken batean, bizitza osoan zehar garatuko den gogoeta metalinguistikoa eta interlinguistikoa suspertu nahi da, ikasleek hizkuntzari buruz pentsatu eta hitz egin dezaten, betiere ezagutza horrek norberaren produkzioa hobetzeko eta besteen produkzioak hobeto ulertzeko eta modu kritikoan interpretatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII4, KPSII5.

10. Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetza demokratikoaren, gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketaren eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra, etikoa eta demokratikoa bultzatzeko.

Konpetentzia hori eskuratzeak ez dakar soilik ikasleak komunikatzeko garaian eraginkorrak izatea, hitzak komunikazioaren ezinbesteko dimentsio etikotik aldentzen ez diren helburuen zerbitzura jartzea ere badakar.

Komunikazio pertsonalaren arloan, hizkuntza-hezkuntzak enpatian eta errespetuan oinarritutako pertsonen arteko harremanak sortzen lagundu behar du, eta entzute aktiborako, komunikazio asertiborako, deliberazio argudiaturako eta gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko tresnak eskaini behar ditu. Hizkuntzaren erabilera sexistak, diskriminatzaileak eta manipulatzaileak ezabatzea eta hitzaren bidez gertatzen diren botere-abusuak ezabatzea agindu etikoa da. Hezkuntza-, gizarte- eta lanbide-arloetan eta testuinguru analogiko eta digitaletan, hizkuntza-hezkuntzak bizitza osoan hitza hartzeko gaitu behar du, betiere gizarte bidezkoagoak, demokratikoagoak eta arduratsuagoak eraikitzeko herritar aktibo eta konprometituaren jardunean, batik bat gizateria gisa planteatuta ditugun erronka handien aurrean: planetaren jasangarritasuna; krisi ekosoziala; indarkeria amaigabeak errotik desagertzea; eta gero eta desberdintasun handiagoak ezabatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII3, HK1, HK2, HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

| Lehen eta bigarren mailak | Hirugarren eta laugarren mailak |
|---|---|
| **1. konpetentzia espezifikoa** | |
| 1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak eta beren barietateak ezagutzea eta baloratzea, arreta berezia eskainiz lurraldeko bertako hizkuntzei eta Espainiako beste hizkuntzei —ikasleen familia-hizkuntzak barne—, hizkuntzen oinarrizko berezitasun batzuk identifikatuz eta haien ezaugarrietako batzuk kontrastatuz ahozko eta idatzizko adierazpenetan eta adierazpen multimodaletan. | 1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak eta beren barietateak eta Espainiako beste hizkuntzak ezagutzea eta baloratzea, haien jatorriaren azalpenetik eta haien garapen historiko eta soziolinguistikotik abiatuta, hizkuntza horienalderdiak kontrastatuz, euskararen eta gaztelaniaren dialektoen ezaugarriak kontrastatuz, eta ezaugarri soziolektaletatik eta erregistro-ezaugarrietatik bereiziz, ahozko eta idatzizko adierazpenetan eta adierazpen multimodaletan. |
| 1.2. Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea eta baztertzea, kultura-, hizkuntza- eta dialekto-aberastasuna errespetatuz eta baloratuz, inguruneko hizkuntza-aniztasunaren behaketatik abiatuta (digitala barne). | 1.2. Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea eta baztertzea, kultura-, hizkuntza- eta dialekto-aberastasuna errespetatuz eta baloratuz, inguruneko hizkuntza-aniztasunaren analisitik abiatuta (digitala barne) eta hizkuntzen arteko kontaktuaren inguruko esploraziotik eta gogoetatik eta hizkuntza-eskubide indibidualen eta kolektiboen ikerketaren inguruko esploraziotik eta gogoetatik abiatuta. |
| 1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-errealitatearen oinarrizko ezaugarriak ezagutzea oinarrizko ezagutza soziolinguistikoen bidez, eta euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera analogikoaren eta digitalaren, euskararen normalizazioaren eta euskal kulturaren transmisioaren aldeko jarrera afektiboa eta proaktiboa azalduz. | 1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-errealitatearen ezaugarriak identifikatzea oinarrizko ezagutza soziolinguistikoen bidez, eta euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera analogikoaren eta digitalaren aldeko jarrera proaktiboa eta afektiboa erakutsiz eskola- eta gizarte-bizitzaren zenbait esparrutan, baita ikastetxean eta ingurunean garatzen diren euskararen normalizazioarekin eta euskal kulturaren transmisioarekin eta sormenarekin lotzen diren ekimenetan ere. |
| 1.4. Hizkuntzen funtzionamenduaz jabetzea, eta gogoeta interlinguistikoak hizkuntzak ikasteko eta beren komunikazio-konpetentzia garatzeko egiten duen ekarpena baloratzea, hizkuntzen zenbait ezaugarri alderatuz. | 1.4. Hizkuntzen funtzionamenduaz eta erabileraz jabetzea, eta gogoeta interlinguistikoak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea, hizkuntzak ikasteko eta beren komunikazio-konpetentzia garatzeko, hizkuntzen zenbait ezaugarri alderatuz. |
| **2. konpetentzia espezifikoa** | |
| 2.1. Zenbait esparrutako ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzu orokorra eta egitura ulertzea, baita komunikazio-premien araberako eta igorlearen asmoaren araberako informaziorik garrantzitsuena ere, ahozko ulermen-arazoak ebazteko estrategia egokiak erabiliz eta kodeen arteko elkarreragina aztertuz. | 2.1. Zenbait esparrutakoak diren eta nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen zentzu orokorra eta egitura interpretatzea, baita komunikazio-premien araberako eta igorlearen asmoaren araberako informaziorik garrantzitsuena ere, elementu ez-esplizituak ondorioztatzen lagunduko dioten ahozko ulermen-arazoak ebazteko estrategia egokiak erabiliz eta kodeen arteko elkarreragina aztertuz. |
| 2.2. Ahozko testu eta testu multimodal errazen forma eta edukia baloratzea, erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz. | 2.2. Nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia baloratzea, erregistroaren eta erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz. |
| 2.3 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez. | 2.3 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea eta baloratzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez. |
| **3. konpetentzia espezifikoa** | |
| 3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte- eta hezkuntza-intereseko gaiei buruzko ahozko narrazio eta azalpen errazak sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraikiz, jariakortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzezko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz. | 3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-intereseko gaiei buruzko nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten ahozko azalpenak eta argudioak diseinatzea eta egitea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraikiz, jariakortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzezko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz. |

| Lehen eta bigarren mailak | Hirugarren eta laugarren mailak |
|---|---|
| 3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarreragin informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, betiere erabilera diskriminatzaile eta sexistak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere. | 3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarreragin informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, betiere erabilera diskriminatzaile eta sexistak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere. |
| **4. konpetentzia espezifikoa** | |
| 4.1. Zenbait irakurketa-asmori erantzuten dioten hainbat esparrutako testu idatzi eta multimodal errazen zentzu orokorra, egitura, informaziorik garrantzitsuena eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, irakurriaren ulermenaren arazoakebazteko estrategia eta trebetasun emozional eta kognitibo egokiak gidatuta erabiliz eta behar diren inferentziak eginez. | 4.1. Zenbait irakurketa-asmori erantzuten dioten eta nolabaiteko zailtasuna duten testu idatzien eta multimodalen zentzu orokorra, egitura, informaziorik garrantzitsuena eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, irakurriaren ulermenaren arazoakebazteko estrategia eta trebetasun emozional eta kognitibo egokiak erabiliz eta behar diren inferentziak eginez. |
| 4.2. Esparru publiko edo sozialeko zein esparru pertsonaleko eta/edo etxeko esparruko testu errazen forma eta edukia baloratzea, horien kalitatea, erabilitako kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz. | 4.2. Esparru akademikoko, publiko edo sozialeko, eta esparru pertsonaleko eta/edo etxeko esparruko testu errazen forma eta edukia baloratzea, horien kalitatea, erabilitako kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz. |
| **5. konpetentzia espezifikoa** | |
| 5.1. Testu idatzi eta multimodal errazen idazketa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinen arteko elkarrizketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailerik gabeko erregistro egokiz. | 5.1. Nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testu idatzi eta multimodalen idazketa formala eta sormenezkoa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinen arteko elkarrizketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailerik gabeko erregistro egokiz. |
| 5.2. Testuak aberasteko oinarrizko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailerik gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan. | 5.2. Testuak aberasteko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailerik gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan. |
| **6. konpetentzia espezifikoa** | |
| 6.1. Zenbait iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzea, hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera kalibratuz; eta informazio hori antolatzea eta norberaren eskemetan integratzea, eta modu sortzailean berregitea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa hartuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz. | 6.1. Zenbait iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzea, hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera kalibratuz; eta informazio hori antolatzea eta norberaren eskemetan integratzea, eta modu sortzailean berregitea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa hartuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz. |
| 6.2. Interes akademiko, pertsonal, sozial edo ekosozialeko askotariko gaiei buruzko ikerketa-lanak gero eta autonomia handiagoz eta zenbait euskarritan egitea, hautatutako informaziotik abiatuz. | 6.2. Interes akademiko, pertsonal, sozial edo ekosozialeko askotariko gaiei buruzko nolabaiteko hedadurako ikerketa-lanak gero eta autonomia handiagoz eta zenbait euskarritan egitea, hautatutako informaziotik abiatuz. |
| 6.3. Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak gero eta autonomia handiagoz erakustea, informazioaren bilaketari, egile-eskubideen errespetuari eta komunikazioari dagokienez. | 6.3. Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak gero eta autonomia handiagoz hartzea, informazioaren bilaketari, egile-eskubideen errespetuari eta komunikazioari dagokienez, harreman pertsonalen eta bizikidetza positiboaren eraikuntzan kolaboratuz, baita testuinguru digitaletan ere. |
| **7. konpetentzia espezifikoa** | |
| 7.1. Aurrez egindako hautaketatik abiatuta, testuak aukeratzea eta irakurtzea, norberaren gustuei, interesei eta premiei jarraikiz, eta irakurle-ibilbidea eta irakurketaren esperientzia jasota utziz. | 7.1. Norberaren gustuen, interesen eta premien arabera hautatutako testuak modu autonomoan irakurtzea, eta norberaren irakurketa- eta kultura-ibilbidearen aurrerapena jasota uztea, irakurketak hautatzeko irizpideak, literatura-kulturara iristeko moduak eta irakurketa-esperientzia azalduz. |

| Lehen eta bigarren mailak | Hirugarren eta laugarren mailak |
|---|---|
| 7.2. Askotariko euskarritako irakurketaren esperientzia partekatzea, ezagutza, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa baloratuz eta obraren zentzua norberaren esperientzia pertsonalarekin eta irakurlearekin erlazionatuz. | 7.2. Askotariko euskarritako irakurketaren esperientzia partekatzea, ezagutza, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa baloratuz eta obraren zentzua norberaren esperientzia pertsonal, irakurle eta soziokulturalarekin erlazionatuz. |
| **8. konpetentzia espezifikoa** | |
| 8.1. Irakurritako obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, jarraibide eta ereduen laguntzaz eta obra osatzen duten elementuen barne-erlazioek obraren zentzuarekin duten loturaren azterketatik abiatuta, literatura-generoen eta -azpigeneroen konfigurazioari erreparatuz. | 8.1. Irakurritako obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, obra osatzen duten elementuen barne-erlazioek obraren zentzuarekin duten loturaren azterketatik eta testuak testuinguru soziohistorikoarekin dituen kanpo-erlazioetatik abiatuta, literatura-generoen eta -azpigeneroen konfigurazioari eta bilakaerari erreparatuz. |
| 8.2. Irakurritako testuen eta bestelako idatzizko edo ahozko testuen edo testu multimodalen eta bestelako adierazpen artistiko eta kulturalen artean lotura arrazoituak ezartzea —gidatuta—, gai, tradizio, topiko, egitura, hizkuntza eta balio etiko eta estetikoen arabera, irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala erakutsiz. | 8.2. Irakurritako testuen eta bestelako idatzizko edo ahozko testuen edo testu multimodalen eta bestelako adierazpen artistiko eta kulturalen artean lotura arrazoituak gero eta modu autonomoagoan ezartzea, mugimendu, gai, tradizio, topiko, egitura, hizkuntza eta balio etiko eta estetikoen arabera, irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala erakutsiz. |
| 8.3. Testu pertsonalak edo kolektiboak sortzea, literatura-asmoz, estilo-kontzientziaz, zenbait euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzaz, askotariko literatura-generoen eta -estiloen konbentzio formalak erabiltzen dituzten obren edo horien zati adierazgarrien irakurketatik abiatuz. | 8.3. Testu pertsonalak edo kolektiboak sortzea, literatura-asmoz, estilo-kontzientziaz, zenbait euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzaz, askotariko literatura-generoen eta -estiloen konbentzio formalak erabiltzen dituzten obren edo horien zati adierazgarrien irakurketatik abiatuz. |
| **9. konpetentzia espezifikoa** | |
| 9.1. Norberaren testuak modu gidatuan berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, aldaketak metahizkuntza espezifiko batekin eta gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta argudiatuz; eta irakurriaren ulermenerako arazo batzuk identifikatzea eta zuzentzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz. | 9.1. Norberaren eta besteen testuak gero eta modu autonomoagoan berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, aldaketak metahizkuntza espezifiko batekin eta gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta argudiatuz; eta irakurriaren ulermenerako arazo batzuk identifikatzea eta zuzentzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz. |
| 9.2. Komunikazio-asmoaren eta igorleak egiten dituen hizkuntza-hautespenen arteko erlazioa azaltzea eta argudiatzea, baita horrek hartzailearengan dituen efektuak ere, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz. | 9.2. Komunikazio-asmoaren eta igorleak egiten dituen hizkuntza-hautespenen arteko erlazioa azaltzea eta argudiatzea, baita horrek hartzailearengan dituen efektuak ere, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz. |
| 9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren oinarrizko alderdiei buruzko orokortasunak formulatzea, enuntziatuen manipulazio, konparazio eta eraldaketatik, hipotesien formulaziotik eta kontraadibideen bilaketatik abiatuta, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta hiztegi, eskuliburu eta gramatika analogiko eta/edo digitalak modu gidatuan kontsultatuz. | 9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi batzuei buruzko orokortasunak formulatzea, enuntziatuen manipulazio, konparazio eta eraldaketatik, hipotesien formulaziotik eta kontraadibideen bilaketatik abiatuta, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta hiztegi, eskuliburu eta gramatika analogiko eta/edo digitalak modu autonomoan kontsultatuz. |
| **10. konpetentzia espezifikoa** | |
| 10.1. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak, hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzaileak identifikatzea eta baztertzea, erabilitako hizkuntza-, testu- eta diskurtso-elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, eta pertsonen arteko komunikazioa arautzen duten hitzik gabeko elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, ingurune analogiko eta digitaletan. | 10.1. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak, hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzaileak identifikatzea, gaitzestea eta baztertzea, erabilitako hizkuntza-, testu- eta diskurtso-elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, ingurune analogiko eta digitaletan. |
| 10.2. Gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, esparru pertsonalean zein hezkuntzaren eta gizartearen esparruan. | 10.2. Gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, solaskideen iritzi eta sentimenduekiko errespetuzko jarrera enpatikoa eta asertiboa erakutsiz, esparru pertsonalean zein hezkuntzaren eta gizartearen esparruan. |

OINARRIZKO JAKINTZAK

| Lehen eta bigarren mailak | |
|---|---|
| **A. HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK.** | |
| *Oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoak. | |
| Norberaren hizkuntza-biografia eta ikastetxeko hizkuntza-aniztasuna behatzeko jarraibideak. | |
| Ikastetxeko hizkuntzei buruzko oinarrizko nozioak: agurtzeko, eskerrak emateko eta barkamena eskatzeko formulak. | |
| Hizkuntza familiak eta munduko hizkuntzak, ikastetxeko hizkuntzei dagokienez. | |
| *Gogoeta interlinguistikoaren hastapenetarako oinarrizko estrategiak. | |
| Eleaniztasunaren eta aniztasun dialektalaren arteko desberdintasunak. | |
| *Euskararen barietate dialektalak. Hurbileko inguruneko euskalkiaren oinarrizko ezaugarriak. | |
| *Euskararen historia, jatorria eta lehen lekukotzak. | |
| *Euskara batua: historia eta bilakaera. Oinarrizko arauak. | |
| *Bizitza pertsonaleko eta eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa. | |
| *Espainiako hizkuntzak: jatorria, banaketa geografikoa eta oinarrizko nozioak. | |
| Zeinu-hizkuntzen oinarrizko nozioak. | |
| Espainieraren barietate dialektal nagusiak eta horien ezaugarririk adierazgarrienak, bertakoari arreta berezia jarriz. | |
| *Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzeko oinarrizko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak. | |
| Euskararen normalizazioaren aldeko eta euskal kulturaren aldeko herri-mugimenduak eta erakundeak: Euskal Kantagintza Berria, Korrika, Euskal Kultur Erakundea (EKE), EIMA… | |
| **B. KOMUNIKAZIOA.** | |
| Zenbait esparrutako ahozko eta idatzizko testuak eta testu multimodalak sortzeko, ulertzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategiak, alderdi hauei arreta eskainiz: | |
| **1. Testua eta testuingurua.** | *Komunikazio-egitatearen osagaien nozioak. |
| | *Gaia. Testuaren asmoa. |
| | *Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz narrazioari, deskripzioari, elkarrizketari eta azalpenari. |
| | *Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. Oinarrizko nozioak. |
| | *Diskurtso-generoak, esparru pertsonalekoak (solasaldia, email...), hezkuntza-esparrukoak (dekalogoa, ahozko azalpena...) eta esparru sozialekoak, barnean direla erakundeenak, sare-sozialenak eta hedabideenak (informazio-liburuxka, bandoa…). |
| | Ahozkotasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak, hala nola Santa Ageda, Olentzero edo inauteriak. |
| | Euskal zinema eta antzerkia. |
| | Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziazko abestiak. |
| | Testu ikoniko eta hitzezkoen eta multimodalen irudia eta elementu paratestualak aztertzeko jarraibideak. |
| | *Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarako jarraibideak. |
| **2. Ulermena.** | *Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu globala eta zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsuaren aukeraketa eta atxikipena. Igorlearen asmoa, testuingu-ru-elementu esplizituetatik abiatuta. |
| | *Testuetan hitzezko hizkuntzaren eta hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera diskrimina-tzaileak hautemateko estrategiak. |
| | *Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak. |

| Lehen eta bigarren mailak | |
|---|---|
| | *Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertzeko eta baloratzeko jarraibideak. |
| | Euskal tradizioko atsotitzak eta esaerak ezagutzeko eta ulertzeko jarraibideak. |
| **3. Produkzioa.** | *Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako eta sormenezko produkziorako estrategiak. Audientziaren eta esposizio-denboraren araberako egokitzapena. Hitzezkoak ez diren elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. |
| | *Testuen idatzizko produkziorako estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak. |
| | Generoen ereduak erreproduzitzeko patroiak. |
| | *Pentsamendua antolatzeko eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar. |
| | *Zuzentasun lexikoa. |
| **4. Elkarreragina** | *Ahozko eta idatzizko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta digitaletan: hitza hartzeko eta hitza uzteko estrategiak. |
| | *Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia; entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketa, genero-ikuspegitik. |
| **5. Informazio-alfabetatzea.** | *Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatzen duena. |
| | *Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak modu seguruan eta sormenez erabiltzeko jarraibideak, horien erabilera baztertzailea eta sexista identifikatuz. |
| | *Etiketa digitala eta desinformazio-arriskuak. Pentsamendu kritikoko estrategiak, manipulazioa eta pribatutasunaren urraketa saihesteko. |
| **6. Hizkuntzaelementuen onarpena etadiskurtso-erabilera.** | Hizkuntza-baliabideak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak, igorleak ahozko eta idatzizko testuetan eta testu multimodaletan duen inplikazioa erakusteko: deixi-formak (pertsonala, denborazkoa eta espaziala) eta oinarrizko modalizazio-prozedurak. |
| | *Perpausaren osagaiak lotzeko euskararen berezko hizkuntza-elementuak (aditz-komunztadura eta deklinabidea). |
| | Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak. |
| | *Hizkuntzen erabilera ez-diskriminatzailerako hizkuntza-baliabideak. |
| | *Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Denbora, azalpen, ordena, kontraste eta abarrerako testu-lokailuak. Barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak (ordezkatze pronominalak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsiak). |
| | *Testuetan aditz-formak ezagutzeko eta koherentziaz erabiltzeko jarraibideak. Narrazioko iraganaldiko denborak. Kontakizun-diskurtsoko denbora-korrelazioa. |
| | *Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera. |
| | *Oinarrizko puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatzeko mekanismo gisa. Esanahiarekin duten lotura. |
| **7. Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.** | Banakako eta taldeko lana testuinguru analogiko eta digitaletan antolatzeko estrategiak, genero-ikuspegiarekin. |
| | Autokonfiantza, ekimena eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa eta hobetzeko aukera gisa. |
| | Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak. |

| Lehen eta bigarren mailak | |
|---|---|
| | *Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak. |
| **C. LITERATURA-HEZKUNTZA.** | |
| **1. Irakurketa autonomoa.** | *Irakurketan gero eta inplikazio autonomoagoa, emakumezko eta gizonezko autoreen obrak barne hartzen dituzten askotariko testuen aurreaukeraketatik abiatuta, eta ereduetan oinarritutako irakurketa-praktikari buruz eta testuei buruz gogoeta egiteko estrategiak. |
| | Askotariko obrak orientatuta eta genero-ikuspegiarekin hautatzeko jarraibideak, eskolako liburutegiaren eta eskura dagoen liburutegi publikoaren miaketa gidatuan oinarrituta. |
| | Euskal literatura- eta musika-ondarearekin lotura emozionalak eta kulturalak ezartzeko estrategiak. |
| | *Irakurketa-esperientzia ereduen bidez adierazteko tresnak, baita irakurritako testuak modu kritikoan eta sormenez birsortzeko eta menderatzeko modu desberdinak adierazteko tresnak. |
| | *Esperientzia pertsonala eta irakurketa-esperientzia mobilizatzeko estrategia kognitiboak eta emozionalak, irakurritako obraren eta gaurkotasuneko alderdien artean loturak ezartzeko, baita beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural batzuekin ere. |
| | Berdinen artean irakurketak gomendatzeko estrategiak, idatziz zein ahoz, eta askotariko euskarritan. |
| | Literatura- eta irakurle-zirkuluarekin lotzen diren kultura-egintzetan modu aktiboan eta orekatuan parte hartzeko interesa. |
| **2. Irakurketa gidatua** | *Gazte-literatura garaikideko eta literatura-ondare unibertsaleko obra garrantzitsuen eta horien zatien irakurketa, gaikaedo genero-ibilbideetan inskribatuta, emakumezko eta gizonezko idazleenak. |
| | *Euskal kultura-ondareko obren eta horien zatien irakurketa, hala nola mitologia, elezaharrak, herri-ipuinak… |
| | *Estrategia kognitibo eta emozionalak eta genero-analisiko eta analisi kritikoko ereduak, erabilitako obren interpretazioaren eraikuntza partekaturako, irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren. Literatura-solasaldiak. |
| | *Literatura-kontaketa. Oinarrizko ezaugarriak. Egitura: hasierako formak, garapen kronologikoa eta amaiera. |
| | *Poesia, bertsolaritza eta kopla zaharrak. Oinarrizko ezaugarriak. Baliabide erretorikoak eta erritmikoak, bertsogintza eta gaiak. |
| | Antzerkia. Oinarrizko ezaugarriak. Antzez-testuaren alderdi formalak. |
| | *Literatura-generoaren oinarrizko elementuen eta obraren zentzua eraikitzearen arteko erlaziorako jarraibideak. Baliabide espresiboen balioaren oinarrizko analisia; hartze-prozesuan dituen efektuak. |
| | *Irakurritako testuak beste testu batzuekin, beste arte- eta kultura-adierazpen batzuekin eta fikziozko forma berriekin lotzeko eta alderatzeko jarraibideak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. |
| | *Literatura-obren eta horien zatien interpretazio eta balorazio pertsonala prozesu eta euskarri dibertsifikatuen bidez adierazteko estrategiak, ereduak eta jarraibideak. |
| | *Genero-ikuspegia duen irakurketa. |
| | Testuen irakurketa espresiboa, dramatizazioa eta errezitazioa, inplikatuta dauden ulermen-, menderatze- eta oralizazio-prozesuekin lotuta. |
| | *Testuak sortzeko jarraibideak, hizkuntzaren erabilera sexista eta diskriminatzailea saihestuz, literatura-hizkuntzaren konbentzioak menderatuz eta emandako ereduei erreferentzia eginez (imitazioa, eraldaketa, jarraipena, eta abar). |
| **D. HIZKUNTZARI BURUZKO GOGOETA** | |
| *Hizkuntza-sistemari buruzko nork bere ondorioak gidatuta eraikitzeko eta komunikazio-unitateak behatu, alderatu eta sailkatzeko estrategiak, metahizkuntza espezifikoa erabiliz. | |

| Lehen eta bigarren mailak |
|---|
| *Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzaren arteko alde nabarmenak eta elkarguneak behatzeko jarraibideak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak kontuan hartuta. |
| *Hizkuntzaren —sistema gisa— eta haren oinarrizko unitateen oinarrizko nozioak, maila desberdinak kontuan hartuta: soinua eta idazketa-sistema, hitzak (forma eta esanahia), diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena, perpausen osagaiak edo esanahien arteko lotura). |
| *Kategoria gramatikalak eta funtzio sintaktikoak. Prozedura lexikoak (afixuak) eta sintaktikoak, kategoria aldaketarako. |
| *Perpaus bakunaren eskema semantikoen eta sintaktikoen arteko erlazioa. Eskema horien arabera enuntziatuak behatzeko eta eraldatzeko jarraibideak eta beharrezko terminologia sintaktikoaren erabilera. Hitzen ordena eta komunztadura. |
| *Hitzak eskuratzeko eta osatzeko prozedurak, eta sexismoaren eragina hitzetan. Esanahian gertatzen diren aldaketei buruzko gogoeta, hitzen eta haien balio denotatiboen eta konnotatiboen arteko erlazio semantikoak, testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera. |
| *Hizkuntzen arteko kalkoak eta transferentzia negatiboak identifikatzeko eta zuzentzeko oinarrizko estrategiak. |

| Hirugarren eta laugarren mailak | |
|---|---|
| **A. HIZKUNTZAK ETA BEREN HIZTUNAK.** | |
| *Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistikoak. | |
| Norberaren hizkuntza-biografia eta ikastetxeko eta herriko hizkuntza-aniztasuna aztertzeko jarraibideak. Hizkuntzen Portfolio Europarra. | |
| *Euskararen historia: jatorria eta teoria nagusiak; lehen lekukotzak. Lehen emakumezko eta gizonezko idazleak. | |
| *Espainiako hizkuntzen garapen soziohistorikoa. | |
| *Euskara batuaren arauak. | |
| *Euskararen eta espainieraren barietate dialektalen ezaugarririk adierazgarrienak. | |
| *Euskararen eta euskara batuaren barietate nagusien ezaugarriak alderatzeko patroiak, baita espainierarenak ere, norberaren lurraldeei arreta berezia eskainiz. | |
| Barietate dialektalen berezko ezaugarrien (fonikoak, gramatikalak, lexikoak eta semantikoak) eta soziolektoen eta erregistroen arteko aldeak. | |
| *Bizitza pertsonaleko eta eskola- eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa. | |
| *Gogoeta interlinguistikoa garatzeko estrategiak. | |
| Hizkuntzen arteko kontaktuaren fenomenoak: elebitasuna, maileguak, interferentziak. | |
| *Hizkuntza-diglosia eta dialekto-diglosia. Hizkuntzen estatusa: gutxiengoaren hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak. | |
| *Hizkuntza-eskubideak eta legeetan eta adierazpen instituzionaletan duten isla (UNESCO, Europako Kontseilua, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea...). | |
| *Hizkuntzen eta kulturen defentsarako eta garapenerako erakundeak: Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Euskariana, Euskal Kultur Erakundea (EKE), RAE, ASALE, Cervantes Institutua... | |
| Hizkuntza-normalizazioaren aldeko herri-mugimenduak eta erakundeak: euskal hezkuntza-sistema, euskarazko hedabideak, euskaltegiak, Euskaltzaleen Topagunea... | |
| *Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak miatzeko eta eztabaidatzeko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak. | |
| **B. KOMUNIKAZIOA** | |
| Zenbait esparrutako ahozko eta idatzizko testuak eta testu multimodalak sortzeko, ulertzeko eta analisi kritikoa egiteko estrategiak, alderdi hauei baterako arreta eskainiz: | |
| **1. Testua eta testuingurua.** | *Komunikazio-egitatearen osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera publiko edo pribatua; solaskideen arteko gizarte-distantzia; komunikazio-asmoak eta xedeen interpretazioa; komunikazio-kanala eta komunikazioan hitzezkoak ez diren elementuak. |
| | *Gaiaren eta tesiaren formulazioa. |

| Hirugarren eta laugarren mailak | |
|---|---|
| | *Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz sekuentzia narratiboei, azalpenekoei eta argumentatiboei. |
| | *Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. |
| | Esparru pertsonaleko diskurtso-generoak (desadostasuna, kexa, ordena...), hezkuntza-esparrukoak (zientzia-dibulgazioko artikulua, laburpena...), gizarte-arlokoak, barnean direla erakundeenak, gizarte-sareenak eta hedabideenak (kexa-gutuna, inkesta, publizitate-iragarkia, editoriala, iritzi-artikulua...), eta lan-arlokoak (curriculum vitaea, lan-elkarrizketa...). Europass tresnak. |
| | Ahozkotasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak, hala nola Santa Ageda, Olentzero edo inauteriak. |
| | Euskal zinema eta antzerkia. |
| | Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziazko abestiak. |
| | Testu ikoniko eta hitzezkoen eta multimodalen irudia eta elementu paratestualak aztertzeko jarraibideak. |
| | *Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarako jarraibideak. |
| **2. Ulermena.** | *Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu orokorra. Ideia nagusiak eta sekundarioak eta zatien arteko erlazioa; garrantzizko informazioaren aukeraketa eta atxikipena. Informazioa berreskuratzea eta ondorioztatzea. Igorlearen asmoa. Testuetako lexikoa. |
| | *Testuetan hitzezko hizkuntzaren, hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak. |
| | *Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak. |
| | *Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertzeko eta baloratzeko jarraibideak. |
| | Euskal tradizioko atsotitzak eta esaerak ezagutzeko eta ulertzeko eta erabiltzeko jarraibideak. |
| **3. Produkzioa.** | *Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako estrategiak. Audientziaren eta esposizio-denboraren araberako egokitzapena. Hitzezkoak ez diren elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. Ahozko deliberazio argudiatua. |
| | *Idatzizko produkziorako estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak. |
| | Testu-egituretako patroien erabilera. |
| | *Pentsamendua antolatzeko eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar. |
| | *Zuzentasun lexikoa. |
| **4. Elkarreragina** | *Ahozko eta idatzizko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta digitaletan. |
| | *Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia. Hitza hartzeko txandak. Elkarreraginen hasiera, mantentzea eta amaiera. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko baliabideak, genero-ikuspegitik: esanahia argitzeko, emozioak islatzeko, parafraseatzeko eta enuntziatuak formulatzeko jarraibideak. |
| **5. Informazio-alfabetatzea.** | *Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak, fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatzen duena. |
| | *Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak modu seguruan eta sormenez erabiltzeko jarraibideak, horien erabilera baztertzailea eta sexista identifikatuz eta baztertuz. |
| | *Etiketa digitala eta desinformazio-arriskuak. Pentsamendu kritikoko estrategiak, manipulazioa eta pribatutasunaren urraketa saihesteko. |

| Hirugarren eta laugarren mailak | |
|---|---|
| **6. Hizkuntzaelementuen onarpena etadiskurtso-erabilera.** | Hizkuntza-baliabideak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak, igorleak ahozko eta idatzizko testuetan eta testu multimodaletan duen inplikazioa erakusteko; deixi-formak, komunikazio-egoerei dagokienez, eta oinarrizko modalizazio-prozedurak. |
| | *Perpausaren osagaiak lotzeko euskararen berezko hizkuntza-elementuak (komunztadura eta deklinabidea). |
| | *Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak. Oinarrizko azalpen-prozedurak: aposizioa eta erlatibozko perpausak. |
| | Hizkuntzen erabilera ez-diskriminatzailerako hizkuntza-baliabideak. |
| | *Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Testu-lokailuak (banatzaileak, ordenakoak, kontrastekoak, azalpenekoak, kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta hipotesikoak) eta barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak eta lexikoak (esanahi abstraktuko nominalizazioak eta hiperonimoak...). |
| | *Testuetako aditz-formen erabilera koherentea. Denborazko korrelazioa perpausen koordinazioan eta menderakuntzan, eta kontakizun-diskurtsoan. |
| | *Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera. |
| | *Puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatzeko mekanismo gisa. Esanahiarekin duten lotura. |
| **7. Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko hausnarketa.** | Banakako eta taldeko lana testuinguru presentzialetan eta digitaletan antolatzeko estrategiak, genero-ikuspegiarekin. |
| | Autokonfiantza, ekimena eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa eta hobetzeko aukera gisa. |
| | Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak. |
| | *Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak. |
| **C. LITERATURA-HEZKUNTZA** | |
| **1. Irakurketa autonomoa.** | *Irakurketan modu autonomoan inplikatzeko estrategiak, eta irakurritako testuei buruz eta irakurketari berari buruz gogoeta egiteko estrategiak. |
| | Emakumezko eta gizonezko idazleak barne hartzen dituzten askotariko obrak modu autonomoan eta genero-ikuspegiarekin hautatzeko jarraibideak, eskolako liburutegia eta eskura dagoen liburutegi publikoa modu autonomoan erabiliz. |
| | Literaturaren eta irakurleen zirkuluarekin lotzen diren kultura-egintzetan modu aktiboan eta ekitatiboan parte hartzeko interesa. |
| | Euskal literatura-, musika- eta eszena-ondarearekin lotura emozionalak (sentsazio berrien esperimentazioa), sinbolikoak (pertsona gisa aberasteko beharra) eta kulturalak ezartzeko estrategiak. |
| | Nork bere gustuak eta irakurle-nortasunaz jabetzeko eta hitzez adierazteko estrategiak. |
| | *Irakurketa-esperientzia adierazteko tresnak, baita irakurritako testuak modu kritikoan eta sormenez birsortzeko eta menderatzeko modu desberdinak adierazteko tresnak. |
| | *Esperientzia pertsonala eta irakurketa- eta kultura-esperientzia mobilizatzeko estrategia kognitiboak eta emozionalak, irakurritako obraren eta gaurkotasuneko alderdien artean loturak argudiatuta ezartzeko, baita beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural batzuekin ere. |
| | Irakurketak berdinen artean gomendatzeko estrategiak, askotariko euskarrietan edo ahoz, betiere obrak literatura-generoetan eta -azpigeneroetan eta sortu ziren errealitate soziohistorikoan kokatuz. |
| **2. Irakurketa gidatua** | *Euskal Herriko, Espainiako eta mundu osoko ondareko eta gaur egungo literaturako obra garrantzitsuen eta horien zatien irakurketa, mugimenduetan edo gaikako edo generoko ibilbideetan inskribatuta daudenak eta emakumezko eta gizonezko egileenak. |

| Hirugarren eta laugarren mailak | |
|---|---|
| | *Obren interpretazioaren eraikuntza partekaturako estrategia kognitiboak eta emozionalak. Literatura-eztabaidak edo -solasaldiak. |
| | *Literatura-kontaketa: egitura; egilea, narratzailea, narrazioaren perspektiba eta polifonia; pertsonaiak; espazioa eta denbora. |
| | *Poesia, bertsolaritza, kopla zaharrak eta herri-baladak: baliabide erretorikoak eta erritmikoak, bertsogintza, gaiak, topikoak, sinboloak. |
| | *Antzerkia. Antzez-testuaren alderdi formalak. Antzerkia, arte eszeniko gisa. |
| | *Literatura-generoaren oinarrizko elementuen eta obrak duen zentzua eraikitzearen arteko erlaziorako jarraibideak. Adierazpide-baliabideek hartze-prozesuan dituzten efektuak. |
| | *Etapak, emakumezko eta gizonezko egileak eta euskal literaturako eta Espainiako literaturako obrarik adierazgarrienak. |
| | *Oinarrizko informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa genero-ikuspegitik erabiltzeko estrategiak, literatura-obren interpretazioa eraikitzeko. |
| | *Irakurritako testuak beste ahozko edo idatzizko testuekin, testu multimodalekin, beste arte- eta kultura-adierazpen batzuekin eta fikziozko forma berriekin lotzeko eta alderatzeko jarraibideak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. Jarraitutasun- eta haustura-elementuak. |
| | *Literatura-obrak eta horien zatiak interpretatzeko estrategiak, aztertutako alderdien integraziotik abiatuta eta testuetako balio kultural, etiko eta estetikoak kontuan hartuta. Genero-ikuspegia duen irakurketa. |
| | Irakurritako obren inguruan ikertzeko tresnak eta estrategiak, obren interpretazioa eraikitzeko eta irakurritako testuen artean loturak ezartzeko interesa sustatzen dutenak. |
| | Testuen irakurketa espresiboa, dramatizazioa eta errezitazioa, inplikatuta dauden ulermen-, jabetze- eta oralizazio-prozesuekin lotuta. |
| | *Testuak sortzeko jarraibideak, literatura-hizkuntzaren konbentzioak menderatzetik abiatuta eta emandako ereduei erreferentzia eginez (imitazioa, eraldaketa, jarraipena, eta abar) eta hizkuntzaren erabilera sexista eta diskriminatzailea saihestuz. |
| **D. HIZKUNTZARI BURUZKO GOGOETA** | |
| *Hizkuntza-sistemari buruzko nork bere ondorioak gero eta modu autonomoagoan eraikitzeko eta komunikazio-unitateak behatu, alderatu eta sailkatzeko estrategia. | |
| Egiturak manipulatzeko eta hipotesiak, kontraadibideak, orokortzeak eta hizkuntzen arteko kontrastea formulatzeko jarraibideak, metahizkuntza espezifikoa erabiliz. | |
| *Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzaren arteko eta lagunarteko erabileraren eta erabilera formalaren arteko alde nabarmenak eta elkarguneak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak kontuan hartuta. | |
| *Hizkuntzaren, sistema gisa, eta haren oinarrizko unitateen oinarrizko nozioak, maila desberdinak kontuan hartuta: soinua eta idazketa-sistema, hitzak (forma eta esanahia; hitza vs. lexiak), diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena, perpausen osagaiak edo esanahien arteko lotura). | |
| *Hitzen forma (kategoria gramatikala) eta funtzioa (perpaus bakunaren funtzio sintaktikoak) bereizteko estrategia, eta prozedura lexikoak (hizkiak) eta sintaktikoak finkatzeko estrategia, kategoria aldatze aldera. | |
| *Perpaus bakunaren eskema semantikoen eta sintaktikoen arteko erlazioa. Eskema horien arabera enuntziatuak behatzeko eta eraldatzeko jarraibideak eta beharrezko terminologia sintaktikoaren erabilera. | |
| *Historian zehar beste hizkuntza batzuetatik datorren lexikoa eskuratzeko prozedurak. Erderakadak. Kultismoak eta ondare-hitzak. | |
| *Hitzak osatzeko prozedurak, eta sexismoaren eragina hitzetan. Esanahian gertatzen diren aldaketei buruzko gogoeta, hitzen eta haien balio denotatiboen eta konnotatiboen arteko erlazio semantikoak, testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera. | |
| *Hizkuntzen arteko kalkoak eta transferentzia negatiboak identifikatzeko eta zuzentzeko estrategiak. | |